

**LANA, FAMILIA ETA BIZITZA
PERTSONALA
BATERAGARRITASUNAREN ALDEKO
II. UDAL ITUNA
(2009-05-07)**

1- AURREKARIAK

Altsasuko Udalak lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea helburu duen I. Ituna sinatu zuen 2006. eta 2007. urteetarako, Altsasuko Feministak taldearekin eta LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuekin batera.

Behin bi urte horiek pasatuta, Altsasuko Udalak lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzeko Tokiko Itunaren berritzeari ekin zitzaion, 2008ko apirilaren 7ko Osoko Bilkurak onetstitako Altsasuko gizon eta emakumeen Aukera Berdintasunerako I. Planak ezarritakoari jarraituz.

Herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izanik eta gizarte-aldaketa guztiek ahalik eta entitate, talde eta pertsona gehienen konpromisoa eta lana eskatzen dutela sinetsita, Altsasuko Udalak **BATEGARRITASUNAREN ALDEKO II. ITUNA** sustatu, bultzatu eta koordinatu du, gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak gainditzea ahalbidetuko duten gizarte egoerak sortu eta sustatzeko.

2- GOGOETAK:

- Gure ustez, BATERAGARRITASUNAK herritarrei lana eta bizitza pertsonala behar bezala garatzeko aukera ematea du helburu. Hala ere, bateragarritasunak ez die emakumei soilik eragiten; aldiz, ondorio garrantzitsuak ditu gizartean, familian eta enpreetan.
- Gure ustez, etxeko eta familiako erantzukizunak banatzeko orduan dagoen desorekak sexuaren arabeko lan-banaketan du oinarria. Izan ere, sexubanaketaren ondorioz, urteetan emakumeek etxeko lanak hartu dituzte bere gain, beste pertsona batzuen zainketa barne, eta gizonak, berriz, sozialki aitortuta eta ordainduta dagoen etxetik kanpoko lana egin dute orohar.
- Gure iritziz, BATERAGARRITASUNAK pentsamoldeak aldarazi behar ditu, jendeak gure gizarteak bizirik irauteko pertsonak artatzea eta zaintzea ezinbestekoa dela uler dezan. Pertsonen zainketa emakumeek eta gizonek berdintasunean egin beharreko eginkizuna da, eta berdinean gertatu behar da etxeko lanen banaketarekin edota denboraren banaketarekin. Izan ere, lan horiek guztiak guztioi dagozkigun ardurak dira.
- Bestalde, BATERAGARRITASUNA gauzatzeko ezinbestekoa da lan alorrean ere hainbat gauza aldatzea. Izan ere, lantokietan antzematen da gehien-gehiena lana banatzeko orduan dagoen desoreka. Horregatik, ezinbestekoa da hainbat neurri hartzea: lehenik, emakumea bere karrera profesionalean sartu, gelditu eta aurrera egitea ahalbidetzen dutenak; bigarrenik, langileei beren bizitza pertsonalaren eskaerei erantzun egokia ematen dietenak eta, azkenik, enpresentzako neurriak, emakumeak kontratatzeagatik eta bateragarritasunaren aldeko planak martxan jartzeagatik, zigortu beharrean, onurak ekartzen dizkietenak.

- BATERAGARRITASUNAK baliabideak, kanpoko laguntzak, denbora eta kontzientziazioa ezinbestekoak ditu, familien beharrak alde batera ez uzteko eta enpresetan aurrera egiteko eta enplegurako prestakuntza jasotzeko.

3. ERABAKIA:

Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea helburu duen II Ituna sinatu duten entitate eta elkarateek:

ERABAKI DUTE:

- 1- Elkarte guztiak lankidetzan aritzea, Altsasuko gizon eta emakumeei lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea errazte aldera.
- 2- Bateragarritasuna lortzeko orokorrean eta herrian bereziki dauden zailtasunei erantzun bat emateko lan egitea.
- 3- Arlo guztietako pertsonen familiako erantzukizunak guztion ardura direla barnera dezaten bultzatzea.
- 4- Zainketaren etikaren garapena bultzatzea, gure iritziz horixe baita aukera berdintasuna sustatzeko gakoetako bat, eta, bereziki, uztartzea erraztuko duen tresna.
- 5- Pentsamoldeak aldatzea, etxeke eta familiako erantzukizunak eta eginkizunak orekan banatze aldera, eta, halaber, denboraren banaketa egokia egin.
- 6- Mendekotasuna duten pertsonen zainketa etxean egitea, eta arreta familian eta komunitatean egitea bultzatzea. Pertsona horien zainketa emakumeek eta gizonen berdintasunean egin beharreko eginkizuna da, herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea ekarriko baitu.
- 7- Enpresak eta tokiko erakundeak sentsibilizatzea, zainketaren etika bultzatzen duten lan egiteko era berriak sustatu ditzaten.
- 8- Herritarrek eztabaida prozesu batean eta jokabideak eta jarrerak zalantzan jarriko dituen prozesu batean parte hartzea bultzatzea, oreka lortzearen, zainketaren banaketan orekaz jokatzera bideratuko den prozesuan.
- 9- Ituna zabaldu, hedatu eta handitzea emakumeak eta gizonak bizitza pribatuan eta publikoan aktiboki parte hartzearen aldeko konpromisoan inplikatu.

Ituna sinatu duten elkarte eta erakundeek osatuko dute, izaera iraunkorraz, Bateragarritasunaren aldeko Altsasuko lan-taldea. Udala, Emakumeen Bilguneko Batzordearen bitartez, Ituna sustatu, bultzatu eta koordinatu duen entitatea denez, batzorde horretako lehendakartzaren ardura izango da itunaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko egiten diren bilererretarako deialdia egiteaz. Halaber, honako hauek ere hartuko ditu bere gain:

- II Itunaren jarraipena egiteko behar den informazioa biltzea.
- Itunarekin bat egin nahi duten erakundeei horren inguruko informazioa ematea.
- Bateragarritasunaren aldeko Altsasuko lan-taldearendako txostenak idaztea.
- Bileren aktak jasotzea.

II. Itunak hiru urteko iraupena izango du: 2009, 2010 eta 2011 urteak. Iraunaldia amaituta berritu ahal izango da **Bateragarritasunaren aldeko Altsasuko lan-taldeak** hala erabakiz gero. Sei hilean behin bilera bat egingo da proposaturiko jardueren jarraipena egiteko.

Itunak hiru urteko iraupena duenez, laneko plana egokituz joango da egiten diren ebaluazioen arabera.

Ituna sinatu duten erakundeetako bakoitzak jarduketa-proposamenean esleitutako lanaren arduraduna izango da eta ordezkari bat izango du gutxienez.

Erakunde sinatzaileek Itunetik atera ahal izango dira nahi dutenean. Edonola ere, ez bertaratzea justifikatzen duten arrazoiak emateko konpromisoa hartzen dute, Bateragarritasunaren aldeko Altsasuko lan-taldeari zuzendutako idazki baten bidez.

Itunari atxikitu nahi diren erakundeek Bateragarritasunaren aldeko Altsasuko lan-taldeari zuzenduko diote eskaera eta Itunera gehitu nahi diren jardueren zerrenda eman beharko diote laneko taldeari.

Bateragarritasunaren aldeko Altsasuko lan-taldeak ez ohiko bilera deitu ahal izango du baldin eta talde batek aparteko arrazoiengatik edota epe zehatz baten barruan egin beharreko jarduera zehatzak izategatik ohiko bilera baino lehen itunari atxiki nahi badio.

4- ENTITATE SINATZAILEAK:

- Altsasuko Udala
- Jesusen Bihotza ikastetxeko Gurasoen Elkarte
- Zelandi ikastetxeko Gurasoen Elkarte.
- Iñigo Aritza ikastolako Gurasoen Elkarte
- Atenea Jakinduriaren Jainkoa Elkarte
- LAB sindikatua.
- Sakanako Ezgaituen Elkarte

Sinatu duten entitateen deskribapena 1. eranskinean aurki daiteke.

5.- LAN EGITARAUA:

Udalak eta parte hartzen duten erakundeek Itunaren menpe jartzen dituzte hura sinatzeak dakarren konpromisoa lortzeko behar diren giza-baliabideak. Udaleko Berdintasunerako agentearen lana izango da ituna bete dadin egin beharreko lana koordinatzea.

Udalak Itunaren zerbitzura jarriko ditu dituen baliabideak eta hura gauzatzea lehentasunezko eginbeharra izango da Emakumeen Batzordeak 2009., 2010. eta 2011. urteetarako aurreikusita duen aurrekontuaren barnean.

JARDUKETAK:

1.- Bateragarritasunaren aldeko II Tokiko Ituna zabaltzea:

1.1 Bateragarritasunaren aldeko Itunaren edukia talde, elkarte, entitate eta herritarrei ezagutzera ematea, hedabideak eta komunikabideak erabiliz.

1.2 Altsasuko entitate, elkarte eta taldeak Ituna onar dezaten animatu eta bultzatzea, horretarako haren helburuak eta erabakiak bereganatuz.

1.3 Udaleko zerbitzu eta erakunde autonomoei Itunaren edukiaren berri ematea, bai eta zerbitzu edo erakunde bakoitzak egiten duen lanean kontuan hartzeko bultzatu ere.

2.- Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea sustatzen duten Estatuko, Erkidegoko eta/edo Tokiko administrazioek ematen dituzten laguntzen berri ematea, enpresek eta pertsonak erabili ahal ditzaten.

2.1 Herriko enpresen datu- base bat sortzea.

2.2 Enpresa horiek kudeatzen dituzten erakunde edo entitateei neurri horiei buruzko informazioa ematea.

2.3 Beste entitate/zerbitzu batzuekin lankidetzan aritzea haiek ahal den gehien zabaltzeko.

2.4 Informazio hori zabaltzeko berariazko gune eta mekanismoak sortzea.

3- Pertsonak behar bezala eta baldintza berdinetan gara daitezten lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko beharra dagoela erakundeetan zabaltzea.

3.1 Bateragarritasuna, eginkizunen banaketa, koheziketa eta abarrei buruzko sentsibilizazio ekintzak egitea (heziketarekin zerikusia duten edota lantzen duten entitateen kasuan).

3.2 Elkarre edo entitate bakoitzaren barnean bateragarritasuna dela eta pertsonak dituzten beharrak eta eskaerak aztertzea.

3.3 Bateragarritasuna errazten edota sustatzen duten baliabideak eta neurriak bilatzea.

4- Bateragarritasuna bultzatzeko martxan jartzen diren jarduketan berri ematea.

5.- Bateragarritasunaren alde egindako lana aitortzeko modu bat edo pizgarri bat ezartzea, bateragarritasunaren alde lan egiten dutenentzat edota hura inplementatu, mantendu edota egokitzeko baliabide ekonomikoekin laguntzen dituztenentzat.

6- Bateragarritasunaren alorrean praktika onen eta esperientzien trukea sustatzea.

7.- Familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzen laguntzen duten **proposamen edota gizartearen ekimenen alde egitea** eta familietan eginkizunak eta erantzukizunak zuzen banatzea.

1. ERANSKINA
SINATU DUTEN ENTITATEEN DESKRIBAPENA

Altsasuko Udala

Altsasuko Udalak ekimen eta kanpaina asko jarri ditu abian emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde, besteak beste:

- 1987ko uztailean Emakumeen Batzorde Informatiboa sortu zen. Batzordea zabalik egon da eskatu duten talde eta erakundeen parte hartzera.
- 1992ko irailean "Emakumeen Bilgunea/ Aula de la Mujer" proiektua onetsi zen. Proiektuaren helburua herriko emakume guztiendako bilgune bat sortu eta abian jartzea izan zen.
- 1992ko abenduan aukera berdintasunerako agentea lanaldi erdiz aritzeko kontratatu zen. Garai hartan lanpostuak "Emakumeen Bilguneko koordinatzaile" zuen izena.
- 1998. urtean berdintasunerako agentearen lan-eskakizuna sartu zen plantilla organikoan.
- 2000ko ekainean lanaldi osoa izatea onetsi zen.
- 2006ko urtarrilean Bateragarritasunaren aldeko I Toki Ituna onetsi zen.
- 2008ko apirilaren 7an Altsasuko emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana onetsi zen.

Jesusen Bihotza ikastetxeko Gurasoen Elkarte

Hona elkartearen helburuak:

- Gurasoei eta tutoreei laguntzea, seme-alaben edota ardurapeko adin txikikoen hezkuntzarekin zerikusia duten guztian.
- Ikastetxeko hezkuntza-jardueretan laguntzea.
- Ikasleen guraso eta tutoreen parte hartzea bultzatzea zentroaren kudeaketari dagokionez.
- Ikasleen guraso eta tutoreei laguntzea, zentroaren kontrolaz edota kudeaketaz arduratzeko duten eskubidea dela eta.
- Ikasleen guraso eta tutoreen ordezkari eta parte hartzea Eskola Kontseiluan erraztea.
- Familia eta ikastetxearen arteko lankidetzak bultzatu eta ziurtatzea.
- Ikastetxeen eta bertakoen arteko harremana bultzatzea, hezkuntza-jarduerak hobeki gauzatzeko.
- Ikasleen prestakuntza osotua lortzen laguntzea, erlijio, moral, kultural eta giza arloetan.

Zelandi ikastetxeko Gurasoen Elkarteak.

Zelandiko Gurasoen Elkarteak Zelandi ikastetxeko gurasoen elkarteak da. Guraso talde batek osatzen du batzordea. Kideak boluntarioak dira eta ikastetxeko ikasle eta haien gurasoendako jarduerak osagarriak antolatzea dute helburu.

Hona elkarteak antolatzen dituen jarduerak:

- Ikastetxeko jantokia kudeatzea, kideek modu onean bazkaltzeko aukera izan dezaten.
- Familientzako hitzaldiak.
- Ikasleendako eskolaz kanpoko jarduerak: Dantza, informatika, zeramika...
- Eskola Kontseiluan parte hartzea.
- Altsasuko Udalarekin lankidetzan aritzea "Antzerki bidezko heziketa" tailerren.
- Hainbat ekintza ikasturtean zehar egutegiko festa nabarmenekin bat eginez:
 - Herriko gaztain-saltzailearen bisita (udazkenean).
 - Olentzero eta Erregeen morroiei ongi etorria gure instalazioetan.
 - Herrian antolatzen diren hainbat festetan parte hartzea (Olentzero, Morroiari gutuna eta Kabalkada).
 - Txokolatada inauterian.
 - Ikasturte bukaerako festa.

Gurasoen elkarteko kide izatea eta batzordeko kidea izatea ikastetxearen gorabeheretan aktiboki parte hartzeko modua da, antolatzen diren jarduerari buruzko informazioa izatea eta gure ikastetxea hobetzen laguntzea.

Zelandi ikastetxearen izaera publikoa dela eta, Gurasoen elkarteak hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen arteko desberdintasun kulturalak eta erlijiosoak kontuan hartzen ditu, desberdintasun horiek pertsona guztiendako aberasgarriak direla uste dugulako.

Iñigo Aritza ikastolako Gurasoen Elkarteak

Iñigo Aritza ikastola kolektiboa, gurasoen irakaskuntza, kooperatibaren jabetza, bere baitan Olazti, Ziordi, Altsasu eta Urdiaingo eremu geografikoa biltzen duena, ikastetxe euskalduna, anitza, ez diskriminatzailea eta akonfesionala da, Euskal Herriko ingurune historiko, sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalean integratua.

Euskal Curriculumaren ildoak jarraituz, ikastola honen xedea ikaslearen erabateko prestakuntza da, pertsona arduratsu, adeitsu, solidario, autonomo, jakin-nahi, gaitasun kritikodun, parte hartzaile, irizpidedun eta ondorengo ikasketak egiteko edo lan munduan sartzeko akademikoki eta linguistikoki egoki gaitua. Gainera, heziketa euskalduna eskaintzen die bere neska mutileri, euskara bere komunikazio eta harreman tresna arrunt bilaka dadin.

Aipatutako helburuak lortzeko, Iñigo Aritzak badu euskal kultura eta hizkuntzaren transmisio, garapen eta sendarpenean konprometitutako profesional talde egonkor eta prestatua eta horrekin batera, ikasleen, gurasoen eta langile ez dozenteen konpromisoa ikastetxearen egitasmoan.

Ikastola behar diren bitarteko materialen jabe da. Metodologia motibatzaile, erakina eta irakaskuntza esanguratsua lantzen ditu bere ikasleen behar, aniztasun eta adin desberdinei egoki eta eraginkortasunez erantzuteko. Gainera, talde-lana, elkarrizketa, begirunea, tolerantzia eta solidaritatea bezelako balore eta jokaera demokratikoak garatuko ditu.

Eztabaida elkarlana eta koordinazioa tresna nagusizat hartuz, gure ikastolak kudeaketa eta funtzionamendu eredu egoki eta eraginkorrak ezarri nahi ditu, bai erabakiak hartzerakoan edota ardurei aurre egiterakoan hezkuntza komunitateko kide guztien partaidetza sustatuz.

Ikastolak xedetzat duen heziketak, gizartearen etengabeko aldaketek sortzen dituzten eskakizun eta premia berriei, eta ikasleen aniztasunari era egokian erantzun diezaion, bertako profesional guztien formazio eta eguneratze egitasmoak sustatzen ditu.

Ekimen sozialetik sorturiko erakundea izaki, Iñigo Aritza ikastolak gizartearen eraginkorra izan nahi du hezkuntza, euskara eta euskal kulturaren esparruan, eta gainerako ikastolekin batera Euskal Herriko Eskola Nazional osatu nahi du.

2008ko maiatzean Iñigo Aritza Ikastolak kalitatezko agiria, KEI, eskuratu zuen munduan lortzen duen lehendabiziko ikastetxea bilakatu delarik.

“Atenea, Diosa de la sabiduría” emakumeen elkarte.

Honako hauek dira Atenea elkartearen helburuak:

- Berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna bultzatzea.
- Aurrerapenaren eta gizarte ongizatearen alde egitea.
- Emakumeen eskubideen defentsa beste elkarte batzuekin koordinatzea.
- Lana, familia eta bizitza pertsonalaren aldeko bateragarritasuna sustatzen dituzten jarduerak bultzatzea.

LAB Sindikatua

LAB klase sindikatua da, gizartearen sustraitua eta gaur egungo egoera sozioekonomikoaren ondorioak pairatzen dituzten sektoreekin konprometitua: gazteriaren eta emakumeen eskubideen alde, prekarietatea eta gizarte bazterkeria borrokatuz, arraza edo sexu orientazioengatiko diskriminazioaren aurka, ekologia babestuz... LAB proiektu solidarioa da, herri honetako ezkerreko jende guztiak dauka tokia bertan.

LAB-ek bere sorreratik, emakumeen zapalketaren kontra borrokatzeko konpromisoa bereganatu eta agertu du. Emakumeenganako bazterkeria egoera eta jokabide anitzak, bai lan munduan bai jendartean oro har, desagertu daitezkeen borrokatzeari beharrezko irizten dio. Sexu-genero bereizkeriak, agerikoak zein ezkutukoak, LABen bertan erreproduzitzen direla, egon daudela, kontziente gara eta berauek ezabatu eta gaindi ditzagun aldaketak eta egokipenak gauzatzea nahitaezkoa daukagu. Horregatik, konpromiso hau jasota dago Sindikatuaren 1. Biltzar Nagusitik gaur egundaino burutu diren Biltzar Nagusi guztietan onartutako estrategia ildoetan.

2002. urtean LAB sindikatu osoa inplikaturako zuen aldaketarako estrategia zehatz baten beharraz jabetu zen : **Aukera Berdintasun Plana**. Urrats berri honen bidez, emakumeen kontrako diskriminazioaren kontra borrokatzeaz gain, borroka hori aurrera eramateko diseinua finkatu genuen.

LABen gizon eta emakumeen aukera berdintasun plana sindikatu berari zuzendua badago, barne mailan ematen ari diren hausnarketak eta aldaketak, gure kanpo lanean isla daukate.

Planaren helburuak honako hauek dira::

- Sindikatu barruan aukera berdintasuna sustatzea
- Oro har eta bereziki ardurazko postuetan emakumeen parte hartzea handitzea
- Emakume langileen egoeraz Sindikatuko emakume eta gizonen sentsibilizatzea
- Gure agenda sindikalean berdintasunaren aldeko aldarrikapenak sartzeari
- Lan munduan emakumeen diskriminazioak ezabatuko dituzten ekimen sindikalak gauzatzea

Sakanako Ezgaituen Elkarteak

Ezgaituen senideek irabazteko asmorik ez duen Sakanako Ezgaituen Elkarteak (SEE) eratu dugu Sakanako ezgaituak gizarteratzeko eta lan-munduan sartzeko bideak jorratzeko helburuarekin. Gure elkarteak ezgaitasun guztiak (fisikoak eta/edo psikikoak) eta adin guztiak hartzen ditu bere barne.

Elkarteak traba arkitektonikoak kentzea, Sakanara baliabideak hurbiltzea (ezgaitasun bakoitzarentzat berezko terapiak, aisialdiko jarduerak) ezgaituak gizarteratzea eta lana edota etxebizitza babestua eskuratzeko aukera ematea ditu helburu, besteak beste.

Hona elkartearen leloa: "Gaur neu naiz, bihar zu izan zaitezke" / "Hoy soy yo, mañana puedes ser tú".